

OHIKO OSOKO BILKURA 13/22

UDALAK 2022ko azaroaren 29an EGINDAKO OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

ALKATEA:

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

ALKATEORDEAK:

Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.

ZINEGOTZIAK:

Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza.
Mattin Aldaia Olasagasti.
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa. (18:19).
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga
Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi.
Ricardo Crespo Rubio.
Jesus Mari López Sánchez.

IDAZKARIA:

Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa.

KONTU-HARTZAILEA:

Aitor Sarasola Salaberria.

2022ko azaroaren 29an ohiko osoko bilera egin da Udaletxean, arratsaldeko 18:00etan, aurrez deialdia egina zegoelarik. Bileran Xabier Lertxundi Asteasuinzarra alkate jaunaren lehendakaritzapean egin da, eta bertan izan gara alboan aipatutako zinegotziak eta neu, Patxi Lapatza-Gortazar Bengoa idazkaria.

1. 2022-10-25EKO OSOKO BILKURAREN AKTAK ONARTZEA.

Alkatea: Arratsalde on, denei eta ongi etorri. Seiak badira eta azaroko plenoarekin hasiko gara.

Ohiko puntuekin, beti bezala. Lehenengoa da aurreko hilabeteko plenoko aktaren onarpena. Urriaren 25ean izan genuen plenoa eta aktaren inguruan zerbait dago esateko? Ez badago ezer, onartutzat emango dugu.

2. DEKRETUEN BERRI EMATEA, 2119.-ETIK 2356.-ERA.

Alkatea.- Bigarrena ere ohiko puntua izaten da. Aurreko plenotik gaurko plenora emandako dekretuen berri-ematea izaten da. Beti bezala, zerrenda pasa zaizue eta ez dakit dekreturen baten inguruan zalantzarik edo ba ote dagoen. Ez badago ezer, aurrera egingo dugu.

3. ZERBITZUAK ESKEINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIK PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA FISKALAREN 6.2 "IKUSKIZUNETARAKO SARRERAK" ALDATZEKO PROPOSAMENA

Alkatea.- Hirugarren puntuan gure ordenantza fiskaletan tasa berri baten sorrera da proposatzen duguna eta Isa eta Kororen artean azalduko digute.

Isa Sanchez: Kaixo, arratsalde on.

Proposatzen dugu ikuskizunetarako, konkretuki emanaldietarako sarreraren prezio berri bat. Momentu honetan 15€-koak eta 10€-koak dauzkagu, eta proposatzen da, horiez gain, 5€-ko tasa berri bat.

Korok emango dizkigu azalpen gehiago.

Koro Etxeberria: Arratsalde on.

Oso sinplea da. Isak aipatu duen bezala, orain arte baditugu tasa edo prezio desberdinak, baina iruditzen zitzaigun falta zitzaigula tarteko bat. Batez ere, formatu txikiko gauzetarako eta espazio desberdinetan egiten direnerako, esate baterako, aurrekoan izan ditugu Milagrosan (...) eta hor iruditzen zitzaigun 8€-ko prezioa altu xamarra zela. Orduan, espazioen arabera, formatuaren arabera eta, batez ere, eta baita ere, gazteak, nolabait, edo gazteentzako antolatzen diren emanaldietarako ere prezio berri eta egokiago bat behar genuela iruditzen zitzaigun.

Horregatik proposatzen dugu 5€-ko berri hau sortzea.

Alkatea: Ados. Honen inguruan zerbait komentatzeko? Bestela zuzenean bozkatzera pasako gara.

Prezio publikoen ordenantza fiskalaren 62 puntuan ikuskizunetarako sarrerak aldatzeko proposamenaren aldeko botoak? **Aho batez onartuta gelditzen da**, beraz.

ONARTUTAKO EBAZPENA

Kultur Teknikariak Kultur emanaldietarako prezio publiko berri bat sortzeko eskaera luzatu du, eta azaltzeko gaia txostena aurkeztu du.

Txosten hori Kultura Delegatuak onartu du.

Kontuan hartu da Antolakuntza Batzordeak 2022ko azaroaren 10ean egindako bilkuran aho batez emandako irizpena.

Horiek horrela, Hernaniko Osoko bilkurak aho batez erabaki du:

Lehenengoa. Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak egiteagatik ordaindu beharreko Prezio Publikoen Ordenantza Fiskalaren 6. eranskinen prezio publikoak aldatzea, zerga egitate berri bat onartzen. Prezio berri hau indarrean sartuko da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eguneratu eta hurrengo egunean.

- EMANALDI BEREZIAK

Emanaldi tipo C	5
-----------------	---

Bigarrena. Alkateari tributuak arautzen dituen erabakiaren eta ordenantzen testuak bategiteko ahalmena ematea, Udalak onartutako aldaketa guztiak sartuta

4. UDAL EUSKALTEGIKO ZUZENDARI ALDAKETA PROPOSAMENA

Alkatea.-Laugarren puntura pasako gara. Kasu honetan Udal Euskaltegiiko Zuzendari aldaketaren proposamena da eta Oierrek azalduko digu.

Oier Agirresarobe: Arratsalde on.

Hau ere hiru urtez behin ekartzen dugun proposamena izaten da. Udal Euskaltegiak hala dauka zehaztuta, hiru urtetik behin Zuzendari aldaketa egiten dute eta oraingoan Gurutze Salaberriak kargua utzi eta Eli Insaustik hartuko du.

Hori da hona dakarkigun proposamena. Klaustroak erabaki duena, horixe ekartzen dugu hona.

Orduan, hori da bozkatzera pasa behar duguna.

Alkatea: Oierrek esan duen bezala, hiru urteroko zikloak izaten dira, klaustroak egiten du proposamena eta guk berretsi egiten dugu. Baina, formalki, bai Udalbatzak berretsi behar duela izendapen hau.

Honen inguruan zerbait aipatzeko? Bozkatzera pasako gara, orduan.

Udal Euskaltegiiko Zuzendari aldaketaren aldeko botoak? Hau ere **aho-batez onartzen da.**

ONARTUTAKO EBAZPENA

Udal Euskaltegiiko zuzendari aldaketa 3 urtetik behin egiten dute. Gurutze Salaberria, gaur egungo Udal Euskaltegiiko zuzendariak, 3 urte beteko ditu zuzendariaren karguan 2022ko abenduaren 31n. Irakasleen Klaustroak Eli Insausti Lasa zuzendari berria izatea proposatu du. Euskara delegatuak proposamena bere egiten du eta 2023ko urtarrilaren 1etik aurrera indarrean sar dadin eskatu du.

Kontuan hartu da Herritarrentzako Zerbitzuen Batzordeak 2022ko azaroaren 17an egindako bilkuran AHO BATEZ emandako irizpena.

Horiek horrela OSOKO BILKURAK AHO BATEZ erabaki du

Lehena.- Eli Insausti Lasa Udal Euskaltegiiko zuzendari berri izendatzea.

Bigarrena.- Pertsonal sailera honen berri eman eta Osoko Bilkurara bideratzea, onarpena eman diezaion.

5. BETERRI BURUNTZALDEA MANKOMUNITATEKO KUDEAKETA AGINDUA.

Alkatea.- Bosgarren puntura egingo dugu salto eta, kasu honetan, Beterri-Buruntzaldea Mankomunitateko kudeaketa agindua da.

Beterri-Buruntza Mankomunitatea pasa den urtean eratu zen ofizialki. Egia da eratze prozesu honetan dabilen honetan oraindik ere beharko litzuzkeen baliabide pertsonal tekniko guztiak ez dauzkala, baina ikusten da eskualdea eta mankomunitatea osatzen dugun sei herrien artean ados gaude, hainbat programarekin martxan jarraitu behar dugula.

Orduan, programa horiek, bai lankidetzakoak direnak, tokiko ekintzetako laguntzak, enplegua sustatzekoak direnak, enpresa txiki eta ertainen digitalizazioaren inguruan daudenak, Ekinean zerbitzua... Ekinean zerbitzua gazteei-eta ekintzaitza bultzatzen diena da.

Ikusten duzue tokiko garapena eta enpleguaren inguruko programak direla, nahiz eta Beterri-Buruntza Mankomunitateak ez eduki, oraindik orain, behar dituen baliabide guztiak, sei herriok adostu duguna da udal bakoitzak ardura bat hartzea. Programa horiek eta gure herritarrei programa horiek eskaini ahal izateko.

Hortaz, hau ere formalismo bat da. Hau sei herrien artean adostuta datorren kontu bat da, baina pleno bakoitzak berretsi behar duena.

Orduan, kasu honetan Hernaniko Udalak hauetako programa baten ardura hartuko luke, kudeaketa ardura. Eta izango litzateke tokiko enplegu ekintzena.

Ez dakit argi azaltzea lortu dudan. Zer bait honen inguruan aipatzeko? Ez badago ezer, bozkatzera pasako gara.

Beterri-Buruntza Mankomunitateko kudeaketa aginduaren aldeko botoak? Hau ere **aho-batez onartzen da**.

ONARTUTAKO EBAZPENA

Beterri Buruntzako Mankomunitateak burutu nahi ditu eskualde honetan azpian zerrendatuko diren programak. Programa horien edukia kudeaketa-agindua arautuko duen hitzarmenaren 1. eranskinean zehazten da.

- 2022an enplegua sustatzeko tokiko ekintzetarako laguntzak, enplegua sustatzeko ekintzen modalitatean (1. mota).

- Hazinnova

- ETE DIGITALA

- ELKAR-EKIN LANEAN

- EKINEAN-ZERBITZUA

Mankomunitateak, urte hasieran eratu bazen ere, oraindik ez du aipatutako programetako jardura material eta teknikoak egiteko baliabide tekniko ezta giza baliabide egoki ezta nahikorik ere. Hortaz, udalez gaindiko toki-erakundeak Hernaniko Udala gaitu behar du horiek gauzatzeko. Horregatik, ezinbestekotzat jotzen da eskualdeko udalokin kudeaketa-aginduak izenpetzea, efikazia-arrazoiengatik, Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11. artikulua araberera.

Kontuan hartu da Hernaniko Udaleko ANTOLAKETA batzordeak 2022ko azaroaren 17an AHO BATEZ emandako irizpena.

Horiek horrela, Hernaniko Udaleko Osoko Bilkurak erabaki du:

Lehena. Onartzea Beterri Buruntza Mankomunitateak proposaturiko kudeaketa-agindua materiala erantsitako hitzarmenaren arabera, Hernaniko Udalerrian honako bi programa hauek egin ahal izateko:

- 2022ko ekitaldirako enplegua sustatzeko tokiko ekintzak (1. mota). (Lanbide Euskal Enplegu Zerbitzuarekin kolaborazioan).
- «Elkar-EKIN lanean» enpleguaren sustapena eta gizarteratzea eta laneratzea. (Gipuzkoako Foru Aldundiarekin kolaborazioan, zehazkiago Ekonomia Sustapeneko Departamentuarekin eta Turismo eta Landa Inguruneko Proiektu Estrategikoen Zuzendaritza Nagusiarekin).

Bigarrena. Hernaniko Alkateari ahalmena ematea Beterri Buruntza Mankomunitatearekin kudeaketa-agindua izenpetzeko, eta toki-erakunde horrekin beharrezko egintza juridiko zein jarduera tekniko eta material guztiak egiteko.

Hirugarrena. Kudeaketa-agindua egiteko hitzarmena argitaratzea Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 11.3.a) artikulua ezarritakoaren arabera.

6. HERNANIKO UDALEKO ETA EREÑOTZU ENTITATE TXIKIKO 2022 URTEKO BIGARREN ORDAIN SARIEN IGOERA-PROPOSAMENA

Alkatea.-Seigarren puntura pasako gara. Kasu honetan Hernaniko Udaleko eta Ereñotzu Entitate Txikiko 2022. urteko bigarren ordainsarien igoera proposamena da.

Urtero udal langileei, kasu honetan bai Hernaniko Udala eta Ereñotzu Tokiko Entitate Txikikoen soldata igoerak udalbatzak onartu behar ditu. Urte hasieran Espainiako Gobernuak % 2ko gehienezko igoera zen onartu zuena eta gu, nolabait ere, behartuta geunden igoera hori egitera ez, baina egiten genuen igoera horrek gehiengo hori, tope hori zeukan. Espainiatik markatuta etortzen da zein igoera tope markatu dezakegun. % 2a onartu genuen jada urte hasieran ez bazen urte erdi aldera, baina gerora bai negoziazioen harira Espainiako Gobernuak tokiko entitateei nolabaiteko aukera eman digu soldata hauek beste % 1'5ean igoetza.

Orduan, guztira 2022ko soldata igoera % 3'5ekoa zen.

Esan bezala, % 2a jada aplikatuta dago eta hona ekartzen duguna gaur onartu dezagun % 1'5eko igoera jada azaroko nominan aplikatuko zaiena langileei eta baita urte osoko atzerapen horiek ere.

Beraz, gaur bozkatuko genukeena da falta den % 1'5eko igoera hori aplikatzea.

Honen inguruan zerbait aipatzeko? Ez badago ezer, bozketara pasako gara.

Hernaniko Udaleko eta Ereñotzu Tokiko Entitate Txikiko 2022. urteko bigarren ordainsarien igoera proposamenaren aldeko botoak? Hau ere **aho batez onartzen da.**

ONARTUTAKO EBAZPENA

Kontuan hartu da ANTOLAKETA BATZORDEAK 2022ko azaroaren 24ean AHO BATEZ emandako irizpena. Horiek horrela, HERNANIKO UDALEKO OSOKO BILKURAK aho batez erabaki du:

Lehena.- 2022ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin, % 1,5eko ordainsari-igoera gehigarria baimentzea, 2021ko abenduaren 31n indarrean dauden urteko ordainsari osoen aldean, Hernaniko Udalaren zerbitzura diharduten funtzionarioentzat eta lan-kontratuko langileentzat. 2022 urterako

ordainsarien igoera osoak ezin du %3,5eko igoera gainditu, 2022ko urtarrilaren 1etik aurrera, 2021eko abenduaren 31n indarrean zeuden ordainsarien aldean.

Bigarrena.- Toki-korporazioetako kideen eta behin-behineko langileen soldata mailak ehuneko berean igotzea.

Hirugarrena.- Akordioa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

7. HERNANIKO ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZU KONTRATUAREN ESLEIPEN PROPOSAMENA.

Alkatea.- Zazpigarren puntura pasako gara eta kasu honetan Hernaniko etxez etxeko laguntza zerbitzu kontratuaren esleipen proposamena da.

Etxez etxeko zerbitzua Hernaniko Udalak urte asko daramatza ematen. Aurreko batean plenora ekarri genuen kontrataziora edo lizitaziora ateratzeko oinarriak onartzeko. Horiek publikoki egon dira argitaratuta eta bost enpresa aurkeztu dira.

Bost enpresa horiek beraien eskaintza tekniko eta ekonomikoak aurkeztu dituzte, landu dira Kontratazio Mahaian eta gaur ekartzen dugun proposamena da etxez etxeko kontratua 2023ko urtarrilean martxan jarriko litzatekeena Aurrerantz Sociedad Cooperativa de Iniciativa Social SLren aldeko esleipena egitea. Bera izan delako Kontratazio Mahaiak proposatu duen enpresa, puntu gehien lortu dituen.

Era berean, pleno honetan berretsi behar dugu, egon da enpresa bat gutxieneko puntuazio teknikoa lortu ez duena: Ayuda Familiar Castellón SL enpresak ez ditu lortu gutxienez lortu behar ziren puntuak eta proposatzen dena da lizitaziotik kanpo uztea. Zer esan nahi du? Balorazio teknikoetan gutxienezko puntura, 24 puntu ziren gutxienez, horretara ere ez dela iritsi enpresa hau.

Orduan, teknikoki posible da eta proposatzen dena da horiek lizitaziotik kanpo uztea. Behin horiek kanpo utzita, gainontzeko lau enpresek egindako eskaintza horietan puntuazio altuena, lehen esan bezala, Aurrerantz Sociedad Cooperativa de Iniciativa Social SL-k lortu du. Eta urteko prezioa 1.341.760 €-koa izango da, BEZik gabe.

Gaur hartzen dugun erabakiarekin, onartzen dugunaren kasuan, 15 laneguneko epea izango du enpresa honek dokumentazio guztia aurkezteko eta kontratua sinatu ahal izateko.

Honen inguruan zerbait?

Jaione Aristregi: Kaixo, arratsalde on.

Gure taldeak esleipen honen aurka bozkatzeko du. Gure filosofiaren barruan zerbitzu publikoen municipalizazioa dagoelako. Zerbitzu hau Udalarena zela gogorarazten dut berriro eta Ezker Abertzaleak berak pribatizatu zuela.

Udal honek zerbitzu honen kudeaketari eta baita ere eraikin publikoen garbiketari, biak zerbitzu oso feminizatuak, berriz ekitea eskatzen dugu.

Hala ere, eman beharreko zerbitzua da eta oraingoz ezin da beste modu batera egin. Baina, berriz diogu, zerbitzu hauek Udalak kudeatu behar dituzte.

Eskerrik asko.

Alkatea: Erabat ados. Beti aipatu dugu gure apustuetako bat dela, zuk aipatu duzun bezala, helburutzat badauzkagu jarrita zerbitzu desberdinak; tartean hau da, berriz ere bermunizipalizatzea. Zerbitzu hauek Udalarenak izaten jarraitzen baitute, Udalak du zerbitzu hauen ardura, nahiz eta kudeaketa enpresa pribatuek egin.

Kasu honetan esan duzu berriz ere ekitea, bermunizipalizatzearen asmo horri. Esan, inoiz ez dugula utzi. Jarraitzen dugu lan horretan. Egia da, txosten juridikoak aipatu digutela, gaur gaurkoz, konplikatu dela eta gaur gaurkoz dauden datuekin ezinezkoa zela bere garaian landu genuen eraikinen garbiketen zerbitzuan; baina ez dugu etsi eta jarraitzen dugu hori hala izan dadin. Bermunizipalizatu dadin hori eta beti aipatu izan dugu, etxez etxeko zerbitzua ere bermunizipalizatzea gure beste apustuetako bat badela.

Baina hemen ere aipatu bi kontu edo bi modutara lan egin daitekeela. Bat da aldarrikapenean gelditu eta jarraitzea aurretik datozen enpresa moduekin lan egiten, edo kasu honetan, eta bereziki etxez etxeko plegu hauetan eta kontratazio honetan egin dugun lana egitea.

Ni oso harro nago plegu hauek nola joan diren. Oso. Gero ikusiko dugu enpresak nola erantzuten duen. Izan da hilabete askotako lana departamentu desberdinekin. Diru asko inbertituko duena Udal honek kontratu berri honetan eta horretan eragina izango dute, gehien bat, langileek, langileen lan baldintzak asko hobetuko direlako. Lehen aldiz Hernaniko etxez etxeko hitzarmen kolektiboa egongo delako.

Lanketa ez da diru-kopurua bakarrik izan, baizik eta emakume langile hauek ahalduntzeko apustu bat egin da eta eragile feministekin lan egin dugu plegu hauek osatzeko. Eta bestetik aipatu 52.000 ordu ematetik 56.000 ordu ematera pasako gara.

Ez da bermunizipalizatu, baina egin den apustua inportantea da eta gaur aurrera baldin badoa, zorientzeko momentua badela iruditzen zait niri.

Jaione Aristregi: Bakarrik esatea pozten garaela asmoa hori izateaz, baina egin egin behar da. Badakigu baldintzak hobetu direla, oso feminizatua den zerbitzu batean. Irakurri dugu. Baina apustua egin behar da bermunizipalizatzeko.

Alkatea: Jarraitzen dugu horretan eta segituko dugu. Eta badakigu zuen laguntzarekin jarraituko dugula.

Honekin bozkatzera pasako gara. Hernaniko etxez etxeko laguntza zerbitzu kontratuaren esleipen proposamenaren aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta PSOE udal taldeenak. Kontrako botoak? Elkarrekin- Podemos Orain Hernani udal taldearenak. **Gehiengoz onartua** geratzen da

ALDEKO BOZKAK (17)

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti.

Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza.
Patxi Ibareguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.
Ricardo Crespo Rubio.
Jesus Mari López Sánchez.
Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi

KONTRAKO BOZKAK (2)

ABSTENTZIOAK

ONARTUTAKO EBAZPENAK

Hernaniko etxez etxeko laguntza zerbitzua (2022PRIR0018 espedientea) kontratatzeko espedientea aztertu da. Prozedura ireki bidez izapidetu da espedientea.

Lizitazio epean bost proposamen (5) aurkeztu dira: AYUDA FAMILIAR CASTELLON SL, GOXARA SLU, AURRERANTZ S. COOP DE INICIATIVA SOCIAL, EULEN SERVICIOS SOCIO-SANITARIOS SA eta ARQUISOCIAL SL.

Kontratazio Mahaiak 2022ko azaroaren 9ko bilkuran honako erabaki hauek hartu zituen:

“- AURRERANTZ S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL, SLren aldeko esleipen proposamena egitea, honek lortu baitu puntuaziorik onena.

- AYUDA FAMILIAR CASTELLON, SL lizitaziotik kanpo uzteko proposamena egitea, proposamen teknikoaren balorazioak ez duelako lortu Prozedura arautu duten administrazio-klausula berezien agiriaren 8. klasulako 1. atalean zehaztutako gutxieneko (24 puntuko) puntuaketa.”

AURRERANTZ S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL enpresak kontratua esleitzeko beharrezkoa den dokumentazioa aurkeztu du emandako epean, baita ere behin betiko bermea 67.088 €koa.

Espedientean jasota dagoen balorazio txostena aztertu da eta bertan jasota daude AYUDA FAMILIAR CASTELLON SL enpresa lizitaziotik kanpo gelditzearen arrazoi eta azalpenak zein balorazioaren zehaztapen eta azalpenak. Txosten hau erabakiari erantsiko zaio eta motibaziotzat hartuko da, 39/2015 Legearen 88.6 artikuluan jasotakoari jarraiki.

Horiek horrela, Hernaniko Udaleko Osoko bilkurak GEHIENGOZ erabaki du

1.- AURRERANTZ S. COOP. DE INICIATIVA SOCIAL, SLri (IFZ:F95187183) esleitzea Hernaniko Udaleko etxez etxeko laguntza zerbitzuaren kontratua, ondorengo baldintzetan:

- Prezioa: 1.341.760 € (BEZ gabe)
- Kontratua aurkeztutako eskaintzan eta prozedura arautu duten administrazio-klausula berezien agiriaren eta baldintza teknikoaren agiriaren ezarritakoaren arabera beteko du.

Gastu hori Udalaren aurrekontuko partida honen kontura kontabilizatuko da: 1.02.227.04.231.14 2022 (4679) .

2.- AYUDA FAMILIAR CASTELLON, SL lizitaziotik kanpo uztea proposamen teknikoaren balorazioak ez duelako lortu Prozedura arautu duten administrazio-klausula berezien agiriaren 8. klasulako 1. atalean zehaztutako gutxieneko (24 puntuko) puntuaketa, erabaki honekin batera doan balorazio txostenean jasotako arrazoiengatik.

- 3.- Esleipendunari eskatzea esleipena jakinarazten denetik 15 lanegun pasa eta bost eguneko epean kontratua elektronikoki sinatu dezan administrazio dokumentuan.
- 4.- Alkateari edo haren legezko ordezkoiari administrazio-kontratua sinatzeko ahalmena ematea.
- 5.- Kontratua gauzatzeko arduradun Zerbitzu Sozialak Saileko zuzendaria izendatzea.
- 6.- Erabaki hau Kontratatzailearen Profilean argitaratzea, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 63.3 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

8. HERNANIKO UDALA UDALERRI EUSKALDUNEN MANKOMUNITATEAN, UEMA SARTZEKO PROPOSAMENA.

Alkatea: Zortzigarren puntura pasako gara. Kasu honetan Hernaniko Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko proposamena da eta Oierrek azalduko digu.

Oier Agirresarobe: Berri pozgarria da guretzat behintzat dakarkigun hau.

Bost urterik behin Eustatek ezagutza datuak plazaratzen ditu eta aurtengo datuek esan digutena da Hernanik langa hori pasa duela. UEMAn sartzeko % 70eko ezagutza datuak eman behar ditu herri batek eta Hernanik aurtan eman du lehen aldiz UEMAn sartzeko irizpide horietan aurrerapausoa.

Hau kalkulatzeko modua euskaldunak eta ia euskaldunen erdiak kontabilizatzen dira eta horrekin % 70eko indize hori ematen du. Guretzat benetan berri pozgarria da, horrek esan nahi baitu herrian euskaraz bizitzeko aukerak ugariagoak direla.

Udal honek aspaldi hartu zuen ibilbidean euskaraz lan egiteko eta euskaraz arreta eman ahal izateko bide horretan oraindik ere urrats sendoagoak emateko aukera eskainiko digu. Horretan lanean sakontzeko aukera emango digu. Horretan ari diren beste herri batzuekin ere gaiaz hitz egiteko, gaian urrats sendoak eta ausartak emateko aukera emango digu eta beste toki batean egoteko aukera emango digu.

Aipatu, baita ere, bigarren herri handiena izatera pasako ginatkeela UEMAn eta uste dut hiritik gertuago gauden herriok ere UEMAn ibilbidea egitea oso polita izango dela. Ekarpen handiak egingo ditugu eta nik uste euskararen normalizazio bidean urrats sendoak emateko garaiak etorriko zaizkigula.

Nire partetik eta badakit gure talderako oso berri pozgarria izan dela eta herri mailan ere euskalgintzan edukitako kontaktuek, behintzat, denek pozez hartu dugun berria dela.

Ekartzen dugun proposamena da mankomunitatera elkartzea da, horrek emango dizkigun baliabideak profitatuz.

Alkatea: Aipatu, mankomunitate horren parte izateak ekarpen ekonomiko bat eskatzen duela. Kasu honetan 25.000 €-koa Hernaniko Udalak egin beharko lukeen ekarpena mankomunitatean, jasoko ditugun zerbitzuen trukean.

Honen inguruan zerbait?

Ricardo Crespo: Arratsalde on, guztioi.

Albiste on horretatik harago, jakin nahiko genuke ze nolako zerbitzuak eskuratuko dituen Hernanik. Horiek ez dira azaldu. Eta, badakigu, Hernanik seguru ekarpen handia egingo diola UEMArri, baina ez dakigu ze zerbitzu jasoko ditugun.

Hori jakin eta gero, gure bozkaren azalpena emango dugu.

Oier Agirresarobe: Ez dut zerrenda ekarri, baina bilera egin genuenean UEMArekin beraiek euskara zerbitzuari aholkularitza ematen die, denei batera; halaber, tailerrak egiten dira herri horietan guztietan, komunak diren problematikei erantzuteko, bai eskoletan, bai herrigintzari eskaintzen zaizkion tailerrak; bestalde, ibilbide honetan, UEMA ez da sortu berria, UEMAK ibilbide luzea dauka eta ibilbide horretan sortutako baliabideak eskura jartzen dira...

Nik uste nahi izanez gero ekarri ziguten zerrenda hori elkarbanatuko dugu eta nahi baduzue batzorde batean landuko dugu sakonago. Agian komenigarria izan daiteke beraiei eskatzea aurkezpena denoi egiteko eta zer zerbitzu emango dituzten eta funtzionamendua nola izango den azaltzea.

Baina ez dut ekarri dokumentu hori eta azalduko dizuegu.

Alkatea: Laburtzeagatik, bi ildo markatzen ziren. Batetik, Udal barrura eta Udal administrazioan erabilera etab. indartzeko bai Udal barruan, Udalak beste administrazioekiko harremanean, baita herritarrekin. Baina beste hanka garrantzitsua ere, euskalgintzarena eta euskararen erabilera kalean eta herritarren artean suspertzearena.

Beraz, bi ildo: bai administrazioari Udal barruan euskaraz bizi ahal izateko, euskaraz lan egin ahal izateko tresnak ematea eta baita euskararen erabilera bultzatzeko herri mailan.

Ricardo Crespo: Bale. Bueno, gu abstenitu egingo gara. Zalantzak baititugu ez ote garen zerbitzua bikoizten ari. Azken batean guk Hernanin euskara sail nahiko indartsua daukagu eta, gainera, oso harro gaude eta horrela adierazten dugu behin baino gehiagotan. Adibide bat: Udalbiltzan, adibidez, Guretik Sortuak proiektuan sartuta gaude baita ere euskara sustatzeko. Arte sorkuntza dela uste dut. Agian oker nago baina uste dut horretarako dela proiektu hori.

Uste dugu azkenean proiektuak eta zerbitzuak bikoizten ari direla.

Alkatea: Bale. Beste hitzartzerik ez badago, bozketara pasako gara.

Hernaniko Udala Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMA) sartzeko proposamenaren aldeko botoak? EH Bildu, EAJ eta Elkarrekin-Podemos Orain Hernani udal taldeenak. Kontrako botoak? Ez dago kontrako botorik. Abstentzioak? PSOE udal taldearenak. **Gehiengoz onartua** geratzen da

ALDEKO BOZKAK (18)

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa.
Andoni Amonarraiz Gómez.

Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.
Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi

KONTRAKO BOZKAK ABSTENTZIOAK (2)

Ricardo Crespo Rubio.
Jesus Mari López Sánchez.

ONARTUTAKO EBAZPENA

Hernaniko Udalerria Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean (UEMAⁿ, alegia), bazkide moduan sartzeko erabaki-proposamena:

Kontutan hartu da ANTOLAKETA batzordeak 2022ko azaroaren 24an GEHIENGOZ emandako ebazpena

Hori horrela HERNANIKO OSOKO BILKURAK GEHIENGOZ onartu du **Lehenengoa**. Hernaniko Udalerria Udalerri Euskaldunen Mankomunitatean bazkide moduan sartzeko erabaki-proposamena. (Hemendik aurrera, Mankomunitateari erreferentzia egiteko UEMA sigla erabiliko dugu).

Bigarrena. Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearen estatutuak onestea, UEMAⁿ Hernaniko Udalaren izenean jarduteko. Estatutu horiek argitaratu ziren Bizkaiko Aldizkari Ofizialean, 2008ko urtarrilaren 11n.

Hirugarrena. 2019-2023 legealdiari begira bost zinegotzi hauek izendatzea Hernaniko Udalaren ordezkari, eskubide eta betebeharrak guztien jabe:

Lehenengo ordezkaria: Xabier Lertxundi Asteasuinzarra, Hernaniko Alkatea, eta haren ordezkaria Itsaso Lekuona Legorburu.

Bigarren ordezkaria: Koro Etxeberria Tolosa, lehenengo alkateordea, eta haren ordezkaria Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza.

Hirugarren ordezkaria: Oier Agirresarobe Lizaso, bigarren alkateordea, eta haren ordezkaria Mattin Aldaia Olasagasti.

Laugarren ordezkaria: Ane Ibarburu Lizeaga, hirugarren alkateordea, eta haren ordezkaria Isabel Sánchez Pérez.

Bosgarren ordezkaria: Patxi Ibarburu Etxeberria, zinegotzi-ordezkaria, eta haren ordezkaria Estitxu Agirre Agirre.

Laugarrena. Toki-arabidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 47.3, 49. eta 70.2 artikulua betetze aldera, espedientea jendaurrean jarriko da, erabaki honen berri emanez iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatuta, hilabeteko epean, interesdunek espedientea aztertu eta egoki iruditzen zaizkien alegazioak idatziz aurkez ditzaten.

Bosgarrena. Erabakia jendarrean jartzen denean ez baldin bada inolako alegaziorik egiten, erabaki hau behin betikotzat joko da besterik gabe, ondorio juridiko guztietarako. Espedientea jendaurrean jarriko da Hernaniko Udalaren Idazkaritzan, interesa duen edozein interesdunek aztertu eta horren gaineko alegazioak egin ahal izan ditzan idatziz, hilabeteko epean iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik.

9. MOZIOA BIZITZA ELKARTEAK AURKEZTUTAKOA "UDALARI AURKEZTUTAKO MOZIOA, AZKEN HILABETETAN EGON DEN HILKORTASUNAREN GEHIKUNTZARI BURUZKOA, SEGURUENIK COVID-19 BOTIKA GENIKO ESPERIMENTALAREN INOKULAZIOAREKIN LOTUTA EGON DAITEZKEENA.

Alkatea.- Gai hau tratatu ondoren, plenoaren azken zatira iritsi gara. Mozioen tartea da orain. Bi mozio dauzkagu herritar plataformek edo herritarrek aurkeztuak eta banan-banan aztertuko ditugu.

Lehenengoa Bizitza elkarteak aurkeztutakoa da. Azken hilabeteetan egon den hilkortasunaren gehikuntzari buruzkoa.

Bizitza elkarteko bozeramailea: Arratsalde on.

Mozio bat aurkeztu dizuegu Hernaniko Udaleko osoko bilkuran, egin diren txosten batzuei buruz. Bertan, ondorio gisa ezartzen da korrelazio bat dagoela biztanleriari egindako inokulazioen eta duela hilabete batzuetatik hona gertatzen ari den gehiegizko hilkortasunaren artean.

Mozioa eztabaidatzea nahi dugu. Aurretik, Jon Ander Etxeberriak, Euskadiko biologoen elkargoko dekanu ohiak egin dituen txostenak justifikatu ahal izatea nahi dugu, eta aurretik, bi galdera egin nahi nizkizuke.

Lehenengo galdera hau izango litzateke: 20 pertsona zaudete Hernaniko herritarren ordezkari, eta jakin nahi nuke 20etatik nork irakurri dituen aurkeztu diren txostenak.

Alkatea: Barkatu, galdera da, osoko bilkura honetarako erregistratu dituzuenak?

Bizitza elkarteko bozeramailea: Noski.

Alkatea: Bai bai, denak dauzkagu.

Bizitza elkarteko bozeramailea: Galdera da ea irakurri dituzuen.

Alkatea: Bai bai, noski.

Bizitza elkarteko bozeramailea: Egin nahiko nukeen bigarren galdera hau da: ea aurkeztu diren txostenen kontrasteren bat egitea erabaki duzuen txosten horiek interpreta ditzakeen beste pertsona aditu batekin, aurkeztu zaizkizuen txostenen fidagarritasuna esan diezaguzuen.

Adituren batekin kontrasteren bat egin baduzue aurkeztu zaizkizuen txostenen fidagarritasuna zein den jakin ahal izateko. Kontraste hori eginda al daukazuen.

Alkatea: Ez. Guri dagokiguna da momentu honetan, Bizitza taldeak eskatuta, mozio hau plenora sartzeari, aurretik eskaera hori ez zaigu etorri, nik dakidala behintzat ez zaigu eskaerarik egin kontrastea egiteko. Bai bide ematea zuek aurkeztutako mozio honi eta txosten hauei lekua ematea hemen, plenoan, eztabaidatzeko. Eta hori da egin duguna. Dokumentazio hau 21 zinegotziok badaukagu, denok irakurtzeko aukera izan dugu eta hemen orain proposatzen dena da zuek defendatzea zuen mozio hau, eskatzen dituzuen puntu hauek, eta guk bozkatzea.

Bizitza elkarteko bozeramailea: Eta, azkenik. Mozioak hainbat puntu ditu eta puntu puntu bozkatzea gustatuko litzaiguke. Jon Ander Etxeberriari hitza ematen diot egin duen txostenaz hitz egin diezazuen.

Jon Ander Etxeberria: Arratsalde on, denoi.

Txostena irakurri baduzue, nire asmoa da txostenak gutxienez sortzea arrazoizko zalantzak. Hori da niri interesatzen zaidana. Arrazoizko zalantzak sortzea, zentzu horretako inokulazioekin gertatzen ari denaren inguruan. Eusko Jaurlaritzaren Epidemiologiako Euskal Zerbitzuaren datu ofizialak dira eta horiekin egin dira azterketak, ez dira nire datuak. Nik Eusko Jaurlaritzaren zerbitzuko datuekin bakarrik funtzionatzen dut.

Datu ofizial horiekin, arrazoizko zalantza batzuk sortzen dira, eta orain planteatuko ditut. Txostena irakurri eta aztertu baduzue, ez naiz gehiegi datuak azaltzera sartuko, hor dituzuelako. Baina gauza bat oso argi dagoela esango dut: inokulazioak zer diren, txertoa zer den, datuen lehen premisa gisa, COVID-19a ez duela kontrolatu ondorioztatzen da. Eta ez du COVID-19a kontrolatu, zergatik? Izan ere, COVID-19ak eragindako heriotza gehiago gertatzen ari dira.

Gero beste hildako batzuk eta hildakoen totalak banatuko ditut. Baina covid bidez hildakoez ari naiz, Eusko Jaurlaritzaren datu ofizialak baitira. COVID-19arekin hildako horiek, 2022an 2020an baino hildako gehiago izan dira, adibidez. 2022an, birusaren ikuspegitik aldaera bat dugu, denek esan dutena ez dena hain hilgarria.

Lotu ditzakegu ideiak. Inokulazioak eta birusarekin hildako gehiago, hain hilgarria ez den aldaera dugun unean.

Bada arrazoia, gutxienez, hausnartzeko eta mahai gainean jartzeko zerbait aztertu behar dela.

Benetan ikaragarria izan da uztaila. 2022ko uztaila. 2020ko uztailarekin alderatuta, 2020ko udaberria igaroa zen, pandemia bere indarrak handienera. 2022ko uztailan hildako kopuru bat dago covid bidez, eta berriro ere gauza bera esango dut, gehiegizkoa, 2020ko uztailarekin alderatuta.

Zer da aldatu dena 2020ko uztailatik 2022ko uztailera? Txertaketak. Eta 2022ko uztailan pauta osoarekin txertatutakoen kopurua % 80 edo gehiago da. Eusko Jaurlaritzaren datuak. Eta hirugarren txertoa hartu dutenak % 60 inguru.

Datu horiek nahikoa dira eztabaida mahai gainean jartzeko.

Adituak esaten ari dira heriotza kopuru gehiegizkoa dela eta lehengo egunean Osasun Ministerioak esan zuen ez zeukatela azalpenik. Ez zuten azaltzen zergatik egon zitekeen gehiegizko heriotza kopuru hori. Batzuek bero-bolada, beste batzuek... Baina ez zuten azaltzen hildakoen kopuru handiegia.

Neurologoen elkarteak, adibidez, esan du normalean baino iktus eta garun-isuri gehiago ikusten ari direla. Agian gaia aztertzen hasi behar da.

Beste aditu batzuek azaldu dute gehiegizko horren azalpena diagnostiko berantiarrek direla, minbiziak berandu diagnostikatzen ari direlako. Lehenengo estadioan diagnostikatu beharrean, laugarren estadioan diagnostikatzen ari dira. Jakina, hau gehigarri bat da. Izan ere, ez dira inokulazioak bakarrik, hau ere bai.

Baina nik atzera joko dut. Diagnostiko berantiarrei buruz hitz egiten dugunean, datuetara jo besterik ez dugu egin behar. Eta datu ofizialen arabera, 2020an artatu ez ziren mendeko pertsonak, hau da,

diagnostiko berantiarrek, hildakoak, 2020an covid-arekin hil zirenen % 80 dira. % 80. Baina 2022an, oraindik ez dago daturik, ez baita itxi, logikoa denez; 2021ean, covidarekin edo ondorioz hildakoak dira, % 132 gehiago. Hau oso esanguratsua da. Hori oso esanguratsua da, alde batetik gogoeta eginarazi behar digulako, eta hau da nik uzten dudan galderetako bat: benetan balio izan al duite PCR testekin egin diren ahalegin guztiek, 488 milioi gastatu baitira horretan, mendekotasuna duten pertsonen diagnostiko berantiarrek egiteko arreta luzatzeko? Arreta primarioak itxiz, etab.

Nik uste dut mahai gainean jarri behar dela eta estrategia baliozkoa izan den ala ez hausnartu behar dela. Eta strategiarekin, berriz, dena biltzen dut, pandemiaren kontu guztiak, non azkena inokulazioak diren, eta, beraz, hildakoez ari naiz. Benetan, pentsa dezagun, hori baliozkoa izan da? Lehen mailako arreta ixtea, jendeari berandu diagnostikatzea, hasieran esan dudana bezala covid bidez hildakoak saihestu ez dizkiguten inokulazioekin jarraitzeko. Are gehiago, txertorik ez zegoenean baino hildako gehiago dago orain.

Egin dezagun galdera hori.

Eta beste galdera da, hori soberan zegoela ikusita, hor badaukat korrelazio-azterketa bat, datu ofizialekin: txertaketaren % 100 baino gehiago izanda, munduko 100 herrialde baino gehiagotan eta hildakoen tasa 100.000 biztanleko. Eta korrelazioa 0'86 da. Oso korrelazio altua da.

Laugarren txertoaren eztabaidan sartu gabe, bai ala ez, nik arrazoizko zalantzaren hazia erein nahi dut gai hauetan guztietan. Edo gertatzen ari denari buruzko arrazoizko zalantzak izaten hasten gara, edo bestela okerrera egingo dugu. Ez bakarrik diagnostiko berantiarretan, ezin baitugu horrela jarraitu osasungintza okerrera doala, etab. Baizik eta txertoak ere ez direla teoriaran saihestu behar zena saihesten ari. Izan ere, gaixotasun bat saihesteko produktu bat sartzen badut, suposatzen dut covidagatik hildakoen kurba jaitsi beharko dudala. Eta hori saihesten ez badut, zertarako asmatu du produktu hori? Pentsatu hori ere.

Horregatik, nire proposamena da une honetan geldialdi bat egin behar dela txertoen gaian, eta mahai gainean dugun guztia aztertu. Nik uste dut pandemia honetan azterketa falta izan dela. Oso gutxi aztertu da. Eta hori esaten dut kausaren ezagutza osoarekin. Ezagutzen dudalako non lan egin dadan.

Errealitatea hori delako. Errealitatea da, gainera, txertoaren testuinguru orokorrean eta badakizue, txertoak nola onartu ziren, etab. Ni ez naiz horretan sartuko. Baina testuinguru orokorrean, txertoa munduko herrialde guztietan onartua dago. Txertoa txertoa esperimental da. Eta zientzian, esperimenduek irautze-data dute. Hala, uste dut iritsi dela unea esperimendu honek irautze-data izan dezan, etorkizunean zer egingo dugun aztertzeko.

Alkatea: Eskerrik asko, zuri. Erronda irekiko dugu.

Ricardo Crespo: Arratsalde on.

PSOEtik esan behar dugun lehenengo gauza da baldintzarik gabeko babesa ematen diegula osasun-langileei, behetik hasi eta osasun-erabakiak hartu behar dituztenetaraino. Eta jarraian esan, mozioa ez eztabaidatzea erabaki dugu, ez baitugu ulertzen nola sartu den. Izan ere, Udalaren araudiak dio edozein erakunde edo entitate, herritar edo auzokidek mozioak aurkeztu ahal izango dituela osoko bilkuraren gai-zerrendan, talde politikoaren bitartez.

Uste dut mozio honetan guztian Udal honek pandemian egin zuena zalantzan jartzen dela. Eta pandemian hartu zituen erabakiak. Okerrak izan zitezkeela edo zuzenak izan zitezkeela, ados. Bere garaian zuzenak zirela pentsatu genuen eta nik zuzenak izan zirela pentsatzen jarraitzen dut.

Beraz, PSOEk ez du jarrerarik hartuko, ez du mozio honen bozketan parte hartuko eta ez ditugu puntuak eztabaidatuko.

Arrazoizko zalantzak sortu nahi dituztela aipatzen da, eta izan diren heriotzei buruzko azterketa egitea bakarrik eskatuko balitz, agian uler genezake. Baina mozio honetan esaten duten gauzetako bat da beharrezkoa dela udaletako arduradunek publikoki barkamena eskatzea gure herrietako gazteei, ez baitira babestu edo defendatu haien aurka egin den hertsapen-kanpainatik. Eta haiek, erakunde publikoetatik.

Guri hori nahiko salaketa larria iruditzen zaigu.

Jaione Aristregi: Arratsalde on.

Bankadako kideak esandakoaren ondoren, ukaezina da kezka dagoela biztanleriaren gehiegizko hilkortasuna eragiten ari diren arrazoiak ezagutzeko. Gure ustez, gai hori gizartean oso eztabaidagarria da, eta, aldi berean, iritzi desberdinek lekua izan behar duten gizarte anitza garela ulertzen dugu. Kasu honetan, zehazki, Bizitza plataformak datuak eskatzen ditu bere ikerketak egiten jarraitu ahal izateko, eta dituzten datuei buruz egiten duten interpretazioaren arabera, txertoa hartzen jarraitzeko zuhurtziaz jokatzeko deia egiten du.

Bizitzako bozeramaileak ondo esan duen bezala, mozio hau puntuka bozkatzea nahi genuke, ahal izanez gero.

Andoni Amonarraiz: Guk, osoko bilkura honetara iristen diren beste mozio askorekin egindako arrazoi beragatik aurka bozkatuko dugu.

Uste dugu hau ez dela ezer teknikorik eztabaidatu behar den eremua, mozio honetan proposatzen den bezala.

Eta hori alde batera utzita, gai pare bat. Sarrera gehiegikeria absolutua iruditzen zaigu, alderdi sozialistak aipatu bezala. Harrigarria da kargu publikoek barkamena eskatu behar izatea, udal eta erakunde guztietan kargu publikoek arima utzi dutenean, Udal honetan ere bai, hernaniarrak salbatzeko. Benetako gehiegikeria iruditzen zaigu.

Mozioaren gainerako puntuak ere ez ditugu aztertuko, gure ustez onartezina delako.

Guk aurka bozkatuko dugu bi arrazoi horientatik: hau ez delako esparru egokia. Arrazoizko zalantzak agertu beharko lirateke komunitate zientifikoaren artean, eta errealitatea zein den erabaki beharko litzateke, eta ez udaletako osoko bilkuretan. Horregatik guk aurka bozkatuko dugu.

Alkatea: Zalantza bat, Ricardo. Zuek aipatu duzue ez duzuela eztabaidatuko, araudiak esaten duelako elkarte batek... agian gaizki ulertu dut: Udal araudiak esaten duelako alderdi politiko baten eskutik sartu behar duela mozioa? Argitu iezadazu, ez dudalako ulertu.

Ricardo Crespo: Ez, gure ustez mozio hau Alkatetzara iritsi da eta Alkatetzak erabaki du gai-zerrendan sartzea. Bestela, ez litzateke gai-zerrendan egongo. Gainerako talde politikook gai-zerrendan sartu eta gai-zerrenda hori bidaltzen digutenean jakiten dugulako. Guk ez dugu hori zalantzan jartzen. Alkateak gai-zerrendan sartzea erabaki du eta eztabaidatu nahi badu, eztabaida dezala. Guk ez dugu mozio hori eztabaidatzen, ez dugulako mozio hau eztabaidatuko. Besteak beste, barkamena eskatzeko eskatzen digu, bere garaian egokiena zela uste genuen zerbaitengatik.

Alkatea: Bale. Nik ulertu dut gaizki.

Gure udal taldearen kasuan, ados gaude esan diren gauza askorekin. Batez ere, gure jendartea anitza da, iritzi anitzak daude, iritzi desberdinak, eta denak errespetatu behar dira.

Gauzak gaizki egingo ziren? Seguru asko gauza asko egin dira gaizki pandemian, pandemiatik kanpo eta gure historian zehar. Ezin dugu aldeko botoa eman, batez ere egiten diren baieztapen batzuegatik. Badaude baieztapen batzuk niri, benetan, eta bai beste zinegotzi batzuk ere aipatu dutelako, mina egin didatenak. Irakurriko dizuet: "Udalaren portaera", aipatzen da; "Udal honen portaerari dagokionez"; "gure herrietako gazteei haien aurka egin duten hertsapen kanpaina", "erakundeek haien aurka egin duten hertsapen-kanpaina babestu eta defendatu du Udalak"; eta esaten da Udal honek hori egin duela.

Honi, barkatuko didazue, udal talde honek ezin dio baiezkoa eman. Seguru asko justuak izan ez diren gauzak egon dira. Gu izan gara lehenengoak covid pasaportearen kontrakotasuna adierazi dugunak, iruditzen zitzaigulako beste metodo batzuk egon zitezkeela eta covid pasaportea ez zela justua. Zoritxarrez, eta hala adierazi genuen, Udal hau behartuta sentitu zen, behartuta egon ginen covid pasaportea aplikatzera, nahiz eta ados ez egon. Baina ardura publiko bat badaukagu eta horregatik egin behar izan genuen. Baina inolaz ere ezin dugu onartu mozio bat, non esaten den Udal honek gazteen kontrako hertsapen bat egin duela.

Inola ere ezin dugu bozkatu Udalak gazteen aurkako hertsapen-kanpaina egin duela dioen mozio baten alde.

Ez delako horrela.

Esan den bezala, gehiago asmatuko zen neurri batzuetan, gutxiago beste batzuetan; baina inolaz ere ez da hertsapen kanpainarik egon inongo kolektiboren kontra. Eta oso kontziente kolektibo guztiek sufritu dutenagatik. Kutsatu direnak, hil direnak... guri kudeatzea tokatu zaigu gaixotasunagatik hil direnak, guri tokatu zaigu konfinamenduan zeuden eta etxetik atera ezin zuten gazteekin nola landu eskola jarraitu zezaten, guri tokatu zaigu pandemia ondoren gazte horien gaizkiegona kudeatzen laguntzea ikastetxeekin batera, eta guri tokatu zaigu adineko pertsonak etxetik atera gabe egon direnean beraien dekadentzia fisikoa eta mentala kudeatu behar izatea gure zerbitzuetatik.

Badakigu honek kalte handiak eragin dituela pertsona guztiengan. Baina inolaz ere ezin dugu onartu mozio bat esaten duena Udal honek hertsapen kanpainarik egin duela.

Eta hau nire iritzi pertsonala da eta udal taldearekin kontrastatu gabekoa da: beste ideia batzuk, ni ez naiz zientifikoa, ez naiz biologoa eta ez daukat iritzi kualifikaturik esateko, baina uste dut ideia hau horrela jartzeak eta Udal honen horrelako akusazio bat egiteak indarra kentzen diela beste datuei edo defendatzen dituzuen datuei.

Orduan, kasu honetan, eta gauza batzuk aztertu genitzakeenak izanda ere, baina formalismo kontuagatik, mozio honi puntuz puntu eskatu duzue bozkatzea eta ez dago arazorik horrela egiteko, baina kontestualizazioa dela eta, guk ezezko boto bat emango diogu. Baina puntuak aztertuko ditugu gure esku egon daitezkeen eta ados gauden kontu batzuk egin ahal izateko.

Bizitza elkarteko bozeramailea: Bi gauza oso sinple. Bata, hasieran galdetu dizuet hirugarren batek, aditu batek, aurkeztu zaizkizuen txostenen fidagarritasuna kontrastatzeko betarik izan al duzuen. Txosten bat ez, bi aurkeztu zaizkizuelako, ondorio berera iristen direnak.

Bigarren galdera. Euskal Herrian kultura politiko dezentea dagoela uste dut, aurrean hertsapen estrategia bat daukagunean antzemateko. Eta derrigortze-estrategia hori herritar guztiei eta, bereziki, gazteei aplikatu zaie.

Nik bi alaba ditut. Nire alabak ezin ziren leku pribatu batean sartu, covid pasaporte eskatzen zitzaielako. Urkulluren dekretua zen horretarako aukera ematen zuen lege-esparrua. Aurtengo irailaren 20an, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiak dekretu hori baliogabetzat jo zuen. Ez dut ikusi alderdi politikorik, ez udalik, azalpenak eskatu dituenik, besterik ez esatearren, herritar guztientzako derrigortze-estrategiari babesa eman dion dekretua sinatu duen pertsonari.

Ez nuke zuen larruan egon nahi. Ez nuke egon nahi. Gazteek, hemen zer dagoen jakiten dutenean, azalpenak eskatuko dizkizute.

Jon Ander Etxeberria: Nik esan nahi nuen gauza bakarra zen ni, egin dudan txostenaren zatia defendatzera etorri naizela. Mozioa udalerraren kontua da, eta ni ez naiz Hernanikoa, noski. Biologoa eta biologoen elkargoko dekanoko ohia naizen aldetik txosten bat egin dut eta, agian arrazoi duzu, beste instantzia batzuek eztabaidatu beharko lukete. Baina instantzia horiek ez dute nahi izan, hori ere esaten dizut.

Nik txostena egin eta azaldu dut eta beste gauza bat da mozioa, eta hori da jorratzen ari garena. Mozioak txosten batzuk ditu, eta ni hona etorri naiz txostenak defendatzera, eta, ikusi baduzue, hona etorri naiz, gertatzen ari denari eta gertatu denari buruzko arrazoizko zalantzak planteatzeko.

Logikarekin jokatzuz gero, arrazoizko zalantzak daudela onartu behar dugu. Bestela, ez ginateke logikaz arituko. Eta hori esatera nator. Zentzu horretan, niri interesatzen zaidana arrazoizko zalantzen hazia planteatzea da, eta, esan dudan bezala, zientziaren ikuspegitik, edozein esperimentera iraingitze-data du. Jar dezagun *stand by* batean eta ea zer gertatzen den.

Alkatea: Ez dakit zuek hitza hartzerik nahi duzuen. Erronda bat egingo dugu.

Andoni Amonarraiz: Hemen mozio bat bozkatuko dugu. Alde batetik, EAJko ordezkari batek erabakitzen duena eta ordezkari horrek erabakitzen duena bere erantzukizuna izango da. Ez herri honetako EAJko zinegotzien erantzukizuna. Bakoitzak ditu bere erantzukizunak.

Ez dut uste herrialde honetan erabakiak hartu, arauak sortu eta gero, arrazoi batengatik edo besteagatik, arau horiek ezabatu diren kasu bakarra izan denik. Eta ez dakit inoiz erantzukizunik eskatu den.

Hau udal baten osoko bilkura da, eta agian ez zegoen oso argi nora zetorren. Egin den lehenengo gauza izan da galdetzea ea irakurri ditugun bozkatzera gatozen zerbaiten txostenak. Udalbatza

honen ohitura da zinegotzi guztiok prestatzen ditugula osoko bilkurara iristen diren gaiak, eta prestakuntza horretan oinarrituta bozkatzen ditugu. Hori hasteko.

Eta ez naiz gehiago luzatuko, ez baitut idatzitakoa irakurri nahi, ez baita inora joango, baina berriz diot, EAJk puntu guztien aurka bozkatuko du.

Alkatea: Guk EH Bildu udal taldearen izenean aipatu inolaz ere ez ditugula zalantzan jartzen, que no dudamos de los informes. Esan bezala, gu ez gara zientifikoak, ez gara kualifikatuak zalantzan jartzeko. Ni behintzat ez naiz hori egiteko moduan ikusten. Arrazoizko zalantzak, noski, zilegi dira eta hemen edozein prozesuko edo horrelako gertaera baten aurrean guztiz zilegi da arrazoizko zalantzak egotea.

Irakurri ditugu txosten horiek. Irakurri ditugu beste batzuk, irakurri ditugu eta zalantzak sortzen dira. Ados. Baina esaten genuena, hainbat baieztapenekin ez gaude ados. Batez ere, gu zuzenean interpelatzeko gaituenean. Aipatu da neurri batzuk hartu direla, neurri batzuk udaloi goitik etorri zaizkigu eta onartu behar izan ditugu, beste batzuk guk jarri ditugu martxan. Eta nik galdetu nahiko nuke, guri galdetu zaigun bezala ea Udalak landu duen mozio hau edo irakurri dituen txosten hauek, ea Bizitza taldeak landu al duen Hernaniko Udalak hartu dituen neurriak eta hartu behar izan dituen neurri horietan zer jarrera eta zer iritzi mantendu duen. Batzuetan publikoki esan baitu edo guk ordezkari bezala esan baitugu «hartu ditugu behartuta gaudelako hartzera». Ez genituen hartu nahi, baina hartu egin behar ditugu. Beste batzuetan esan dugu «oraingoz dauzkagun datuekin, hau iruditzen zaigu».

Bizitzak hartu du lan hori? Baieztatu beharrean Hernaniko Udalak hertsapen kanpaina bat egin duela gazteen kontra?

Niri iruditzen zait ezetz. Edo agian iritzi kontrajarriak dauzkagu eta iruditzen zaio, benetan, hertsapen kanpaina bat egin dugula.

Hau, esan dugun bezala, ikusita eta zalantzak egotearena guztiz zilegi dela eta zalantzak argitu behar direla noski, inolako zalantzarik gabe, bere horretan ezin diogu baiezkoa eman eta hasiera batean kontrako bozka emateko asmoa genuen, baina eskatu duzue puntuka bozkatzeko eta puntuka bozkatuko dugun honetan, lehenengoan, dela datuak eskatzearena kontrasteak egin ahal izateko, puntu horretan baiezkoa bozkatuko dugu guk, datuak ere argiak izan daitezzen eta eskura jarri.

Gero hirugarren puntuan Udal honi eskatzen zaio azken hamar urteetan hildako kopuruen datua pasatzea. Hor abstenitu egingo gara, baina kontu juridiko bategatik. Kontrastatu egin behar dudalako nik, datu hori pasa dezakegun edo ez. Eta inongo eragozpenik egongo ez balitz, pasako genuke. Baina hemen juridikoki eskuak ez harrapatzeko, gure kasuan abstenitu egingo gara. Horrekin, nik uste, kontra aterako dela, baina guk hori ikusiko dugu eta...

Andoni Amonarraiz: Nik galdera bat idazkariari: mozioak sarrera eta puntuak ditu. Puntu bat onartuz gero, sarrera eta puntu onartuko dira, ezta? Hau da, mozioak sarrera eta osoko bilkurari egiten zaion eskaera ditu. Mozio honetan puntu bat onartzen bada, sarrera eta puntu hori onartzen dira? Nahiz eta gainerako puntuak ez onartu.

Idazkaria: Nire iritzi juridikoa da bozketak banaka egiten direla eta puntu bakoitzean osoko bilkurak onartzen du, lehendakari jaunak horrela zuzentzen baldin badu eztabaida bere eskumenen barnean. Azaldu dut?

Andoni Amonarraiz: Hau da, sarrera ez litzateke onartuko? Sarrera ere agertuko litzateke edo ez? Alegia, sarrera mozioaren beste elementu bat da.

Idazkaria: Bozkatzen bada sarrera bai. Baina...

Andoni Amonarraiz: Sarrerak ez baitira bozkatzen.

Idazkaria: Jartzen du udalbatzari eskatzea eta gero formulatzen da, bi puntu daude, oso argia da: eskabide honekin Udal honek udalbatzari onar dezala... Hori da bozkatzen dena Alkateak besterik esaten ez badu.

Alkatea: Modu horretan egingo dugu. Denok ere adierazi dugu, alderdi sozialistak ez du bozketan parte hartuko, baina gainontzeko alderdiek, Elkarrekin-Podemosek ez du horrelakorik aipatu, baina EH Bilduk eta EAjk aipatu dugu sarrera honekin ez gaudela ados. Orduan, bozkatuko duguna da puntuz puntu sarrera alde batera utzita. Hau da, puntuak bozkatzeak eta puntuen alde bozkatzen den kasuan alde bozkatze horrek ez du suposatzen bat egiten dugunik sarrera horrekin. Esan bezala, gure kasuan sarrera horrekin ez gatozelako bat.

Orduan, zuzenean eta bakarrik puntuak onartuko ditugu, horrekin onartu gabe sarrera hori.

Eragozpen juridikorik ez dago horretarako, ezta?

Idazkaria: Lehendakariak zuzentzen du eztabaida eta mozio hau hemen aipatu den moduan ez du inolako bozeramailerik aurkeztu, beraz, Alkateari dagokio bozketa zuzentzea eta idazkaritzari emaitza gorde eta publiko egitea.

Alkatea: Bizitza taldeak eragozpenik ez badu modu honetan egiteko, Ez badago horrela egiteko arazorik puntuak bakarrik bozkatuko ditugu, sarrerari aipamenik egin gabe eta puntu bat onartzean ez du esan nahiko sarrera hori onartzen dugunik.

Puntuz puntu egingo dugu, beraz. Puntuak hor dauzkagu. Ez ditugu irakurriko. Puntuz puntu joango gara bozkatzen.

Lehenengo puntuaren aldeko botoak? EH Bildu eta Elkarrekin-Podemos Orain Hernani udal taldeenak. Kontrako botoak? EAj udal taldearenak. Gehiengoz onartua gelditzen da.

ALDEKO BOZKAK (13)

Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa.
Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.

KONTRAKO BOZKAK (5)

Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.

ONARTUTAKO MOZIOAREN PUNTUA

1.- Eusko Jaurlaritzako arduradunei auditoria bat egiteko eskatzea, azken hilabeteetan Araban, Bizkaian eta Gipuzkoan izandako gehiegizko heriotzen arrazoiak ezagutzeko, eta Euskadiko Biologoek Elkargoko Ex dekanok, Jon Ander Etxebarriak, egindako txostenean egiaztatuta eta Pedro Prieto zientzialariak eta Nazioarteko Krisi Medikoaren adierazpenean aipatutako ondorio kaltegarrien datu baseetan berretsita daudenak (aipatutako hiru agiriak mozio honi erantsi zaizkio).

Bigarren puntuaren aldeko botoak? Elkarrekin-Podemos Orain Hernanirenak. Kontrakoak? EH Bildu eta EAJrenak. Ez da onartzen

ALDEKO BOZKAK (2)

Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.

KONTRAKO BOZKAK (16)

Hirugarren puntuaren aldeko botoak? Elkarrekin-Podemos Orain Hernanirenak. Kontrako botoak? EAJrenak. Eta abstentzioak? EH Bildu udal taldearenak. Ez da onartzen.

ALDEKO BOZKAK (2)

Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa.

KONTRAKO BOZKAK (5)

ABSTENTZIOAK (11)

Laugarren puntuaren aldeko botoak? Ez dago aldeko botorik. Kontrako botoak? EH Bildu eta EAJrenak. Eta abstentzioak? Elkarrekin-Podemos Orain Hernanirenak. Ez da onartzen.

ABSTENTZIOAK (2)

Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.

KONTRAKO BOZKAK (16)

Bosgarren puntuaren aldeko botoak? Elkarrekin-Podemos Orain Hernanirenak. Kontrako botoak? EH Bildu eta EAJrenak. Ez da onartzen

ALDEKO BOZKAK (2)

Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.

KONTRAKO BOZKAK (16)

Eta azkeneko eskaera da mozio honi emandako erantzuna Bizitzari posta elektronikoz jakinaraztea. Hori ez dugu bozkatuko zeren egingo dugu.

Hala, puntu batzuk bai eta beste batzuk ez dira onartu.

Eskerrik asko hala eta guztiz ere egindako ahaleginagatik, bai mozio hau aurkezten, bai egindako azterketak erantsita aurkezten eta gaur mozio hau hemen aurkezteagatik eta azalpenak emateagatik.

10. MOZIOA HERRITAR BATEK AURKEZTUTAKOA “ANTENA IGORLEEN MAPA HERNANIN”

Alkatea.- Honekin beste mozio batera pasako gara. Kasu honetan herritar batek aurkeztutakoa da eta antena igorleen maparen ingurukoa da. Hernaniko antena igorleen maparen ingurukoa. Kasu honetan ere, Julen, zurea da hitza.

Julen (publikotik): Barkatu, lehendabizi, ni ez bainago ohituta horrelako egoera batean azalpenak ematen. Esan nahi dudana da korapilatu baino lehen, irakurri egingo dut. Luze xamar joango da, eskaerak niretzat zehatzak dira, baina nik testuinguruan jarri nahiko nuke, zergatik iritsi garen honetara eta zergatik iritsi garen eskaera hauek egitera.

(Mozioa).

Alkatea: Julen, eskertuko nizuke, denbora aurrera doalako eta interbentzioak neurtuta daudelako, testura mugatuko bazina. Guk azken batean testu hau bozkatuko baitugu.

Horregatik esan dizut, kontestualizazioan ondo, asko errepikatu da aurreko ideia eta horregatik aipatu dizut gaian zentratzea interesgarriagoa dela, azkenean bozkatuko duguna testu hau delako. Hori da guk bozkatu dezakeguna, ezin dugu beste ezer bozkatu.

Julen (publikotik): Galdera da, badago nahiko kontzientzia hemen, badute nahikoa kontzientzia, informazio, bozka eman behar dutenek, ohartzeko esaten ari naizenak ze eragin eta garrantzia duen osasunean?

Alkatea: Gu gaude informazio guztiari irekita. Eskertzen dugu informazioa eta beste modu bat izan daiteke mozio hau aurkezten denean aurreko mozioarekin aurkeztu diren bezala, aurkeztea datuak, lehen esan dugun bezala. Guk ordezkari politikook aurkezten diren mozioak eta dokumentazio guztia jasotzen dugulako eta irakurtzen dugulako.

Esaten nuelako, denbora kontuagatik eta gaia ez dadin nahastu. Momentu honetan bozkatzera goazena delako erradiazioarekin eta elektromagnetismoarekin zerikusia duena. Orain arte, agian, gaiak pixka bat nahasten ari direlako.

Andoni Amonarraiz: Nik uste dut alderdi politikoek, kritikatu gabe eh, mozioak osoko bilkuretara iristea ahalbidetzen dutela, eta mozioak sartzen dituztenei azaldu beharko litzaiekeela, zer den mozio bat, osoko bilkurara zertara datorren, zer den osoko bilkura hau... Izan ere, uste dut gaur bigarren aldia dela kargu publikoen gaitasunak zalantzan jartzen dituztela. Mozioak ekarri dituztenek behintzat jakin dezaten. Mozio batzuk ekarri dira osoko bilkura honetara, botoa emango dugunok informatu egingo garela uste dugulako edo gure parametroen barruan behar bezain garrantzitsuak direlako, mozioak bozkatu ahal izateko adinako ezagutza dugulako. Izan ere, osoko bilkura honetako kideek botoa emateko nahikoa arrazoi dutela zalantzarik badago, ez daitezela mozioak ekarri.

Herri bateko zinegotziak gara eta...

Alkatea: Andoni, barkatu, moztu egingo dizut. Momentu hau ez da eztabaidan sartzeko momentua.

Andoni Amonarraiz: Ez ez, baina jada bigarren aldia da...

Julen (publikotik): Ez ez, Andoni, barkatu, nik ez du zalantzan jarri...

Alkatea: Ez, barkatu, ez gara eztabaidan sartuko. Niri dagokit pleno hau gidatzea. Horregatik hartu dut hitza, pleno honen gidari bezala, pixka bat gaia zentratua izan dadin eta argitzeko. Bai alkatezarekin eta alkatezako idazkariak azaldu dizue mozioarena eta badakit, Julen, zurekin zuzenean egon zela idazkaria prozedura hau zein den azaltzeko.

Gauzak nahastu ez daitezten eta inor nahastu ez gaitezen, eskertuko nuke zentra gaitezen bozkatzera goazen testuan, hau baita bozkatu behar duguna; testu hau. Erregistratu dena. Gero irekiko dugu eztabaidarako txanda, orduan tokatzen delako eztabaida.

Julen (publikotik): Orduan eskaerak egingo ditut?

Alkatea: Hori da, aurkeztutako testura mugatu.

Julen (publikotik): Orduan, esan dudanaren eta esan gabe utzi dudanaren arabera, zinegotzietan eta alkateari eskatzen diet aldeko botoa eman dezatela:

(Mozioaren puntuak).

Erradiazioekiko gero eta pertsona hipersentikorrago gehiago daude, bai elektromagnetikoak, bai wifi mikrouhinak. Zergatik? Ba nik ez dakit. Nik dakidana da gero eta gehiago daudela.

Orduan, pertsona horiek kaltetuak direla ulertzen dut, ur uholde bat dagoenean bezala, une honetan erradiazio uholde bat jasotzen ari garelako. Gainera, badirudi aurrera doala eta bizitza osorako geratu zaigula.

Gero eta pertsona hipersentikor gehiago daude. Pertsona horiek loaren nahasmendua dute. Loaldian dago immunitate-sistema baxuen, orduan daude ahulen, eta habitataren azterketa egitearen kostuak diru asko eskatzen du.

Ekonomiak zenbait ez dio aukerarik ematen azterketa hori egiteko eta, beraz, laugarren puntua da pertsona horiei laguntzeko partida bat ematearen alde bozkatzea. Pertsona batzuei laguntzea, azterlana diruz laguntzea eta hori guztia.

Horixe esan nahi nuen.

Alkatea: Gure testuan bosgarren puntu bat agertzen da.

Julen (publikotik): Bosgarren puntua? Ez, badakit (barre egiten du), zaharra ekarri dut nahi gabe.

Alkatea: Hor utziko dizute gurean erregistratu den dokumentua. Bosgarrena ere baduena. Hori da guk daukaguna eta bozkatuko duguna.

Julen (publikotik): Bueno, baina hau zehaztu egin nuen bigarren... Hau zen azaroaren 3an sartu nuen lehena, 5 puntu zituen. Botoa emateko puntuak argitzeko eskatu zenidatenean, azaroaren 22an beste idatzi bat sartu nuen, lau puntukoa.

Alkatea: Ez, guk hemen daukagu azaroaren 22an erregistratuta dagoena bost punturekin.

Julen (publikotik): 22koa?

Alkatea: Azaroaren 22an, eguerdiko 13:28an sarrera-erregistroa emanda eta bost puntu dauzka.

Julen (publikotik): Eta zer esaten du bosgarrenak?

Alkatea: Bosgarren puntuak esaten du Kaxkoko portaletara fibra optikoa kable bidez...

Julen (publikotik): Baina hori ez da 22koa, hori 3koa da.

Alkatea: Ez, ez.

Julen (publikotik): Ah, 22koan ere bai? Tira, hortaz bai, horretan...

Alkatea: Momentu honetan, barkatuko didazu, baina galtzen ari naiz puntu honetan. Ez dakit zer den bozkatu behar duguna, ze puntu bozkatu behar dugun... Bozkatu behar duguna hau da. Elkarreak, herritarrak, kasu honetan Julen, iruditzen bazaizu, momentu honetan ez dela hori bozkatu behar, adierazi eta erabakiko dugu edo puntu hori kentzen dugun edo mozioa ez den etorri behar den bezala eta mozioa erretiratu egiten dugun.

Julen (publikotik): Puntu hori pixka bat aipatuko dut.

Alkatea: Puntu hori sartuta daukagu. Puntu hori aipatu eta... labur-laburrean, mesedez.

Julen (publikotik): Hilaren 17an eta 18an Iturolan egindako bilera batzuetan izan nintzen, eta Hernani Burujaberena ekimen ona iruditzen zaidala esan nahi dut, ezer baino lehen.

Hernanin, Kaxko inguruan eta urrun samar dauden beste auzo batzuetan, Interneten estaldura txikia edo motela dela aipatu zen bertan, eta, zehazki, Kaxkoan, batzuek nahitaez behar izaten dute, batez ere konfinamendu garaian; zailtasun handiak izan zituzten, lan-tresna garrantzitsua zelako. Orduan, han jakinarazi zidaten, ez dakit hala den edo ez, Kaxkoan dagoen estaldura falta hori konpontzeko Udala antena berri bat eraikitzea edo kokatzea aztertzen ari zela.

Ez dakit egin den ala ez.

Orduan, guk proposatu genuen, nik beste pertsona batzuekin batera, jakinda bere garaian Kaxkoko kaleetan hodiak bota zirela zuntz optikoa pasatzeko, instalazio hori amaitzeko, Kaxkoko herritarrek zuntz optikoaren bidez Internet erabili ahal izan dezaten.

Batzuek beren kontura egin dute. Uste dut farmazia batek eta besteren batek bere kontura egin duela.

Beraz, mozioaren puntu hori kontuan izan zedin nahi nuke, Udalak eroanbideak atarietaraino eraman zitzaizkion.

Alkatea: Bale. Hori da. Beraz, bost puntu horiek dira bozkatzera pasako garenak eta orain erronda irekiko dugu, ordena mantenduz.

Ricardo Crespo: Milesker.

Testuingurua pixka bat alde batera utzita, mozioa azaldu duenak uste zuen beharrezkoa zela; eta puntuetan zentratuta, guk esan aldeko botoa emango dugula. Datuak izatea eskatzen delako. Daturik gabe ezin dugu ez erabakirik ez neurririk hartu, hartu behar badira. Baina lehenengo gauza datuak izatea da.

Gauza bakarra eskatuko nioke mozioa azaldu duenari: bigarren puntuan minbizien ehunekoak ezagutzea aipatzen da, baina minbizi horiek mozioan eskatzen denarekin zerikusia duten ere jakin beharko da. Hau da, antenekin eta gainerakoekin. Erlaziorik duten jakin beharko da, ez ehunekoak bakarrik.

Eta bosgarren puntuan, azaldu duen horretan, gogoratu guk otsailean proposatu genuela eta irriaren egiten ari dela esan zitzaigun. Ez dakit nola dagoen kontua. Batzorde batean galdetu genuen ea Kaxkoan irrati-hargailuen proba egin zen eta ea funtzionatzen zuen. Proba egin gabe zegoela esan ziguten, eta ez dakit nola egongo den kontu hori.

Jaione Aristregi: Zientifikoki frogatuta dago uhin elektromagnetikoekiko esposizioa arriskutsua dela osasunerako.

Gure taldea ados dago antena igorleen kokapenari buruzko datuak edo mapak eduki beharko genituzkeela. Gure taldeak ere mozio honen alde bozkatzeko du. Eta bosgarren puntuan, ulertu nuen Santa Barbaran jarrita zegoen antena onartuko zela, baina gutxi gorabehera urte batzuk barru prest zegoen lekutik sartuko zela zuntza. Hau momentuko irtenbidea dela jendeak orain Internet izateko, baina ez da epe luzerako konponbidea.

Andoni Amonarraiz: Mozio hau puntuz puntu bozkatzeko eskatuko genuke, guk hiru puntutan alde bozkatzeko dugulako eta bitan kontra. Bestela, abstenitu egin beharko gara.

Orduan, puntuka bozkatzeko eskatuko genuke.

Bestalde, bosgarren puntuan, Ricardok esan duen bezala, batzorde batean galdetu zen ea aurreikusi ziren antenek Kaxkoa estaltzen zuten. Ez zekitela esan zuten orduan, eta Kaxkoari estaldura ematen ez diotela dirudi. Uste dut bilera batean azaldu zela.

Orduan, hala bada, honako hau planteatuko genuke: dagoeneko botata dauden zuntz-lerroak erabil daitezke edo Udalak linea bat bota dezake.

Alkatea: Gaur gaiak nahasteko eguna da. Mozio batera goaz eta beste gai bat atera da. Argitzeko eta azken honi erantzunez, eta gero EH Bildu udal taldearen postura mozioarekiko aipatuko dut.

Esan bezala, onartu zen mozio bat eta ari gara aztertzen. Esan genuen irrati bidezko loturarena probatzen ari garela, Kaxkoan ere izan zitekeela herri bideko konponbidea jendeari Interneta abiadura handiagoan iristarazteko, baina pasa den astean edo orain dela bi aste hasi gara lantzen zuntza sartu ahal izateko aukera. Beti defendatu dugun bezala, ez enpresa handiekin, baizik eta modu burujabe eta kooperatibo batean. Hori lantzen ari gara eta espero dugu errealitate egin ahal izateko aukera egotea. Baina teknikoekin hori lantzen ari gara. Hori argitzeko.

Mozioari dagokionez, pixka bat lehen aipatu dudana. Mozioaren testuan gauza bat dator, baina egin den defentsarekin, esan diren gauza batzuekin ezin dut ados egon. Eta baieztapen pare bat apuntatu ditut. "Nos maltratáis" eta horri ezin diogu guk aldekorik eman, iruditzen baitzait Udal honek ez

duela inor gaizki tratatzen edo inori tratu txarrik ematen. Uste dut ezin zaiola Udal honi esan tratu txarrak ematen ari denik.

Eta zuk, Julen, aipatu duzu, gainera, bigarren pertsonan: “nos maltratáis”.

Aipatu duzu, “nos tratasteis de...” kiroldegian edo txertatu gabeko pertsona bezala, “nos tratasteis de...”. Udal honek inongo momentutan ez du epaitu, ez du juzgatu inor berak hartu duen erabakia edozein izanda ere. Udal honek neurri batzuk jarri behar izan ditu eta jarri ditu. Eta horrek ondorio batzuk sortu ditu. Baina inongo momentutan ez du epaitu inor, hartu duen erabakiagatik. Eta hori argi esaten dut.

Orduan, gaiarekin zerikusirik ez zeukan, baina aipatu duzu eta uste dut erantzun gabe ezin zuela gelditu.

Mozioan zentratuta, esan, guk ez dugula aldeko botoa emango. Kontrako botoa emango dugu, baina bi kontugatik. Bat, epeak, hemen aipatzen diren epeak ezingo ditugulako bete; eta bestetik konpetentzia kontu bat ere badagoelako. Aipatzen da, “gaixotasunen portzentaje bat”. Udalak ez du datu hori, ez dakit datu horiek lor ditzakeen... Badaude ideia batzuk, adibidez, zuntzarekin ari gara lanean, datuak eskatzearekin ados gaude, kontra bozkatzeko dugu epeetan, mozio honek lotu egiten gaituelako eta epe hauek errespetatzera ez ginatkeelako iritsiko, eta modu sintzero batean esaten dut. Alde bozkatzeko bagenu ez ginatkeke iritsiko epe hauetan lana egitera. Gauza batzuk ikusi ditzakegu eta landu ditzakegu. Beste batzuk, aldiz, uste dut konpetentzia kontuak direla eta ez dagokigula guri.

Hortaz, gure udal taldeak kontrako botoa emango du, baina ez ditugu ateak ixten eta gaia lantzeko eta lehen esan bezala, zalantza guztiak eta ideia guztiak zilegi dira eta datu guztiak garrantzitsuak. Edukitzea, gero norberak iritzi bat egiteko.

Julen (publikotik): Andonik proposatu duen bezala bozka daiteke. Lehen esan bezala, Bizitzako puntu batzuen alde bozkatzeko baduzu, horrek sarrera onartzea dakar? Horrelako zerbait, ezta?

Bizitzaren txostenean sarrera bat eta bost puntu zeuden.

Alkatea: Bale, ulertu dut. Puntuz puntu bozkatzeko eskaera egin du, hala egingo dugu eta hemen ere berdin, puntuak dira bozkatzeko ditugunak.

Julen (publikotik): Ezin da bozkatu hemen epeak kenduta?

Alkatea: Testua hau da.

Julen (publikotik): Jo...

Alkatea: Testua ezin dugu aldatu. Egin dezakeguna da puntuz puntu. Baina esaten duguna da, formalki testu hau ez dugu onartuko, baina honek ez du esan nahi Udal Gobernu Talde honek ideia hauek hartzen ez dituenik eta landuko ez dituenik.

Baina testua hau da eta testua bozkatu behar dugu.

Julen (publikotik): Alegia, berriaren akatsa izan dela datak jartzea, ezta?

Alkatea: Ez, *novatada* ez, zuen eskaera bat izan da eta guztiz zilegi da eskaera hau egitea.

Julen (publikotik): Baina nik ez dakit zuen iritzia, epe batzuk jarri ditudalako.

Alkatea: Noski. Gaur eztabaidatzen dugulako eta iritzia gaur jakingo duzulako, Julen. Hau da prozedura. Zuek eskaera bat sartzen duzue, zuek edo edozein eragilek, eskaera bat sartzen da eta gero hemen eztabaidatzen da. Eta hemen jakiten da bakoitzak ze jarrera hartzen dugun eta zein den gure iritzia.

Eta zuen eskaera guztiz zilegi da, noski.

Julen (publikotik): Bale.

Alkatea: Beraz, puntuaz puntu bozkatzera pasako gara.

Bada ezpada eta zalantzarik egon ez dadin, puntuak dira bozkatzen ditugunak, puntuekin ados baldin bagaude puntu horiekin gaude ados. Puntu horiekin gaude ados, ez dugu zertan ados egon aurrez aipatu den guztiarekin eta egindako sarrerarekin.

Puntuz puntu joango gara, hortaz. Ez ditut puntuak irakurriko, zenbakiak bakarrik aipatuko ditut.

Lehenengo puntuaren aldeko botoak? EAJ, PSOE eta Elkarrekin-Podemos Orain Hernani udal taldeenak. Kontrako botoak? EH Bildu udal taldearenak. Beraz **ez da onartzen**.

ALDEKO BOZKAK (9)

Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.
Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Ricardo Crespo Rubio.
Jesus Mari López Sánchez.
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa

KONTRAKO BOZKAK (11)

Bigarren puntuaren aldeko botoak? PSOE eta Elkarrekin-Podemos Orain Hernani udal taldeenak. Kontrako botoak? EAJ eta EH Bildu udal taldeenak.

ALDEKO BOZKAK (4)

Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Ricardo Crespo Rubio.
Jesus Mari López Sánchez.
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.

KONTRAKO BOZKAK (16)

Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.

Hirugarren puntuaren aldeko botoak? Elkarrekin-Podemos Orain Hernani, PSOE eta EAJrenak. Kontrako botoak? EH Bildurenak. Ez da onartzen

ALDEKO BOZKAK (9)

Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.
Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Ricardo Crespo Rubio.

KONTRAKO BOZKAK (11)

Jesus Mari López Sánchez.
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.
Alex Erdozia Igoa

Laugarren puntuaren aldeko botoak? PSOE eta Elkarrekin-Podemos Orain Hernani udal taldeenak. Kontrako botoak? EAJ eta EH Bildu udal taldeenak.

ALDEKO BOZKAK (4)

Jaione Aristregui Cao.
Lurdes López Gorrotxategi
Ricardo Crespo Rubio.

KONTRAKO BOZKAK (16)

Jesus Mari López Sánchez.
Xabier Lertxundi Asteasuinzarra.
Koro Etxeberria Tolosa.
Oier Agirresarobe Lizaso.
Ane Ibarburu Lizeaga.
Mattin Aldaia Olasagasti
Estibaliz Aldeiturriaga Amuriza
Patxi Ibarguren Echeverria.
Isabel Sánchez Pérez.
Estibaliz Sara Agirre Agirre.
Itsaso Lekuona Legorburu.

Alex Erdozia Igoa.
Andoni Amonarraiz Gómez.
Jose Antonio Cuesta Sóle.
Felipe Etxeberria Agirretxe.
Blanca Alberro Aranzasti.
Mikel Gurutzeaga Zubillaga.

Eta bosgarren eta azken puntuaren aldeko botoak? Hau **aho-batez** onartzen da. Esan dugun bezala, hau jada egiten ari baikara.

Hala, bosgarren puntua da onartua geldituko litzatekeena.

Eskerrik asko, Julen, zuri ere, azalpenagatik eta mozioa aurkezteagatik.

ONARTUTAKO MOZIOAREN PUNTUA

Bosgarrena.- Interneten gorakada progresiboarekin gauza eta pertsona guztientzat, sarbidea eta prestazioak berdintasunez izan beharko lirateke herritar guztientzat. Kaxko auzotarrek gainerako kuota bera ordainduz jasaten duten urritasunari buruzko informazioa jaso ondoren, Kale Nagusian duela 20 urtetik dauden kutxatiletatik hartutako zuntz optikoko kableak atari bakoitzera eramatea eskatzen dugu. Hobekuntza bikoitza herritar guztientzat; alde batetik, hirigune historikoaren estetika, fatxadetatik kendu egiten baita pareteko kable-multzo hori guztia, hernaniarrentzat hain enblematikoa den ingurunea argitzen duena; bestetik, eta gure eskaeraren oinarri gisa, habitataren osasuna zaintzea, udalak ez baititu areagotu kanpoko enpresetatik jasotzen ditugun irrati- eta telefonia-uhinen emisio kaltegarriak.

ESKARIAK ETA GALDERAK.

Alkatea.- Honekin bai, pleno guztietako azken puntura pasako gara. Galde-eskarien puntua. Ez dakit galde-eskaririk ba ote dagoen.

Andoni Amonarraiz: Joan den osoko bilkuran hiru galdera egin genituen eta hilabete honetan ez dakigu ezer Akan baserriaz. Osoko bilkuran hitz egin genuena dakigu, ez gehiago.

Harrobiari buruz zerbait argitzen ari da, gaur ere txostenen bat jaso dugulako. Harrobia badoala dirudi.

Eta Floridatik Zubiperako bidearena, txosten bat jaso dugu eta hilabete honetako batzordeetara eramango zutela esan ziguten, eta ez dute bat bera ere eraman. Proiektuak uztea eskatuko genuke eta aztertu egingo ditugu, arazorik ez dela egongo uste dugu eta prest gaude.

Ea pasa dakigukeen eskatzen dugu, Landareko eta Zubipeko babes-horma perimetralak instalatzeko proiektuari dagokionez Urak-en txostena iritsi dela uste baitugu. Uste dugu Urak-ek dagoeneko erantzungo ziola bidali diogun proiektuari, eta Urak-en erantzuna emateko eskatzen dugu.

Alkatea: Erregistrotik egin duzue eskaera eta pasako zaizue.

Bestea nire akatsa izan da. Aipatu genuen galdetu zenituen gai batzuk batzordeetara eramango genituela eta bai, hurrengo batzordetakoren batean sartuko ditugu gaiak.

Akan baserriaren inguruan berdin, baita ere. Ez dakit batzordean edo dokumentazioa, baina dena delakoa egingo da.

Ricardo Crespo: Barkatu, Xabier, Urak-i eskatutako txostena talde guztiei pasa, mesedez.

Alkatea: Bai bai, talde guztiei pasa eta beharrezkoa baldin bada batzorde batera ere eramango dugu.

Andoni Amonarraiz: Erregistro bidez eskatuko dut?

Alkatea: Eskatu duzu jada.

Andoni Amonarraiz: Bale bale.

Victor (publikotik): Arratsalde on.

Nire galdera duela sei hilabete egin nuen bera da. Zer esan diezaguke alkate jaunak PERCH-ari buruz? Eratu behar zen talde horri buruz, eskaini ginen herritar batzuk parte hartzera eta eskertu ziguten.

Erantzun nahi baduzu... Baina beste kontu bat daukat.

Hain zuzen ere, PERCH. (Plan Especial Rehabilitación Casco Histórico) legearekin, gauza guztietarako balio duela dirudien legearekin, aurtengo martxoaren 1ean nik Hirigintza Sailari egindako eskaeretako bat bederatzi hilabeterako bidean da, haurdunaldi bat bezala. Kanpoko eta barruko fatxadetan forma eta formula mantendu behar direla erantzun didate.

Bederatzi hilabete PERCH-en mende dagoela esateko.

Izan ere, PERCH (Plan Especial Rehabilitación Casco Histórico)aren fitxak, hau da, etxea juzgatzeko orri bakarra duen fitxak, zehazki, urrutitik ez dute ikusiko, baina zaharberritzeari eta kontserbazioari buruzko ohar beltz bakarra du. Eta babes aurregraduan beste puntutxo beltz bat, erdia jartzen duena. Baina argi eta garbi jartzen du altxaera kendu egin behar dela. Gudarien Plazako fatxadaren zarpiatua ere oso argia da. Izan ere, argazki guztiek, eta hemen dituzue duela 100 urte baino gehiagotik etxe horri buruz dauden hiru argazki bakarrak, etxea zarpiatuta zegoen. Fatxadatik ikusten dena, orain, etxearen eraikuntza da. Fatxada guztiak zulatu eta adreiluak airean utziko bagenitu bezala da! Horrela eraikitzen zen! Hau ez da etxearen aurrealdea!

Eta bizilagunok teilak eta egurrak zaharberritzen ahalegintzen gara, monumentu bat izan dadin. Monumentu gisa definitzen duen argazki honetan, duela 100 urte, edo beste honetan, edozeini erakusteko ez dut arazorik. Eta hiru argazki zaharretan, hiru fatxadak desberdinak dira. Alterazioak dituzte. Eta edozeinek kontrastatu dezake fatxada horrek, gutxienez, jatorrizkoaren 15 aldaketa dituela. Gero, PERCH. (Plan Especial Rehabilitación Casco Histórico)ari heltzea denontzat balio duen lege bat izatea da, berriro diot. Fitxan bertan jartzen duena ere ukatzen du.

Eta baten batek interesik badu, jasotzetik libre dagoen eraikin bakarraren froga ekarriko dut hona. Hau 1931koa da, oker ez banago.

Udalak altxatze bat egin zuen. Hau da PERCH. (Plan Especial Rehabilitación Casco Histórico)arekin birgaitu beharko zenuketen Udala! Baina lege honek ez dizue eragiten. Lege bat egin duzue besteentzat.

Frankista, diot bide batez, zalantzarik bazegoen.

Beraz, osoko bilkurari eskatu nahi diodana, erantzukizuneko delatzailea uste baitut, lege honek eragindako 42 eraikin daudela kontuan hartuta, ez da hain erraza esatea “ez, hori kendu eta kito”. Ez, esan nuen eta berriro esango dut: eraikin hauetako bizilagun guzti-guztiak legearen eraginpean daude. Erantzukizun zibil eta penalak dituzte! Bihar nire pisua saltzen badut eta erosleari ohartarazten ez badiot PERCH. (Plan Especial Rehabilitacion Casco Historico)a gainean duela altxagarri horiek erortzeko abisu batekin, epaiketara eraman nazakete, diru guztia itzuli beharko nioke eta kalte-ordainak eman. Eta hori uste dut Hernaniko herritarrek jakin beharko luketela. Zein egoeratan dauden, antolamendutik kanpo utzita, eta berriz ere galdera bat egiten dut, azken sei hilabeteotan egin dizuedan bera, eta, alkate jauna, ez didazu erantzun: zein da lege horren helburua? Zein da helburua? Oso garestia delako. Ez dakit zer nahi duzuen, baina bizilagunoi dagokigun ordainketa oso garestia da.

Gero, mesedez, eskatuko dizut lege honek ukitzen dituen guztiei argitzea legeari dagokionez zer ondorio dituen haiek edozer gauza egiten badute. Erantzukizunak dauzkatelako eta jendeak ez dakielako.

Uste dut Udalaren betebeharra dela, legea Udalarena baita, ohartaraz diezaien lege horrek, hitzez hitz, bere jabetza usurpatu duela. Eta ez dute ezer erabakitzeko ahalmenik, oso lege baliagarria baita, edozertarako balio diezaikeena. Eta dena nahi duenari uzteko, hori baita nik sistematikoki behin eta berriz ikusten dudana. Ezin da zarpiatu, ezin da balkoirik jarri eta ezin da teilatua estali. Dena da ezezkoa. Eta zer nahi duten jakin nahi dut. Zer itzuli behar dugu, etxe honetara? Zuek eskatzen duzuen zer da, etxe hau egon dadila hor aurrean?

Bide batez, ongi etorri guztioi, zuek guztiak etxe honetako bizilagunak zarete. Denak etxe honetako jabeak zarete eta erantzukizun bera duzue eta erantzukizun berberak eskatuko dizkizute. Bertan parte hartzen duzue.

Tira, laguntzen diguzue edo hondoratzen gaituzue. Baina argi esan diezaguzu.

Mila esker.

Alkatea: Eskerrik asko, Victor.

Martin, hasieran egin duen galderari erantzunez.

Martin Aldaia: Galdera da PERCH. (Plan Especial Rehabilitacion Casco Historico)a ea noiz egokituko den edo noiz egingo den prozesu bat. Martxan daukagu, jada lanketa hori enkargatu zaio enpresa edo talde bati eta azkeneko ukituak ematen ari gara beraiekin, jada lanak konkretatzeko. Zer egin behar duten eta zer ez. Jada aste honetan hasiko dira lanarekin.

Hori da lehendabiziko partea.

Bigarren partea da PERCH. (Plan Especial Rehabilitacion Casco Historico)ak, esaten duzu, 1900 eta ez dakit noiztik datorren, PERcha egin zen 1997an. Eta ez da udaletxeen legea bakarrik. Udaletxeak proposamen batzuk egiten ditu eta berretsi egiten du Eusko Jaurlaritzako Ondare Sailak. Dagoelako leku bat babestuta. Plan de Rehabilitación del Casco Histórico.

Orduan, batzuk jartzen dituzte proposamen batzuk eta besteek berretsi egiten dituzte.

Alkatea: Nahi baduzu erantzun, Victor, eta erronda itxiko dugu.

Victor (publikotik): Barkatu, elkartean kezka asko daude eta. Bide batez, eta alkateak uzten badit, duela bi hilabete komentatu niolako, gaur goizean mangera eta konpresorea martxan zeuden, eta kale-garbitzaileak ere bai. Nahi baduzu, mugikorrean grabatuta daukat. Horrek berdin jarraitzen duela ikus dezazun.

Barkatu, Mattin, arrazoi zenuen. 1931ko beste makroproiektuaz ari nintzen, Ezkiagatik Zinkoenearaino egin behar zuten alameda handiaz. Udal honek badaki herritar horiek guztiek 71 urte daramatzatela eskuak lotuta, eta korporazio batek ere ez du izan proiektu horri behingoz aurre egiteko izan behar denik. Eta bitartean, bizilagun horiek guztiak hipotekatuta dauzka. Badakit oposizioak errepikatu egingo duela. Zuek ez dakit. Hurrengo agintaldian lan hori egingo duzue, agian? Edo bizilagunak erortzen utziko dituzue? 71 urte lege batek harrapatuta. Hori da lege frankista, Mattin.

Hurrengo korporazioak onartuko al du inork erabiltzen ez duen lege bat izatea egiten duen gauza bakarra denean bizilagunei kalte egitea? Bizilagunen interesak defendatzeko zaudete hemen. Edo beste interes batzuk defendatzen dituzte?

Alkatea: Tira, hor utziko dugu.

Datorren korporazioari dagokio datorren legegintzaldian egingo duena erantzutea. Guri dagokigu legealdi honetan egiten ari garena eta egin behar duguna azaltzea.

Honekin azaroko plenoa bukatuko dugu.

Eskerrik asko eta hurrengoan ikusiko dugu elkar berriz ere.

Hernanin, 2022ko azaroaren 29an